



Sagardoetxea

*herri baten erroak*

**SAGARDOETXEA-AISIALDI TALDEAK  
JARDUNALDI EDO EGUN-PASA BATERAKO PROPOSAMENA  
2009**

**Kontaktua**

Leire ALKORTA 943 550 575

[prentsa@sagardoetxea.com](mailto:prentsa@sagardoetxea.com)

## SAGARDOETXEA-AISIALDI TALDEAK

### Jardunaldi edo egun-pasa baterako proposamena

**Sagardoetxeatik, Euskal Sagardoaren Museotik, museoaren eta sagardoaren interpretazio gunearen errealitatea Aisialdi Taldeen eskura jartzen dugu 2009. urteko aisialdi programetarako (udaleku irekiak, gazte txokoak, ludotekak, etb...) jarduera aberasgarri gisa.**

Proposaturiko jardunaldiaren helburuak honakoak dira: batetik, haurrei sagarraren eta sagardoaren kultura zabaltzea, eta bestetik, hurrek landa inguruneko euskara ezagutu eta praktikatzea.

Horretarako, honako jarduera hauek garatzea planteatzen dugu:

Goizean:

- Sagardoetxean bisita gidatua eta haur jolasak.

Eguerdi-arratsaldean:

A PROPOSAMENA:

- Herrian bazkaldu eta pilotalekuan jolas libreak.

B PROPOSAMENA:

- Herriko igerilekuan bazkaldu eta arratsalde-pasa.

### SAGARDOETXEAN BISITA GIDATUA ETA HAUR JOLASAK

Sagardoetxea sagarra, sagarrondo eta sagardoaren kultura zabaltzeko museo gune bat da, hain bertakoa den eta sustraitua dagoen kultura sustatzeko gunea. Museoen kontzeptu tradizionaletik desberdina da, sagarrondoen bizitza eta sagardoaren elaborazio prozesua modu aktiboan ezagutzeko aukera ematen duen leku dinamikoa baita.



Sagardoetxeak museoko sagastira eta museo-gunera bisitaldiak eskaintzen dizkie aisialdi taldeetako umeei. Museoeko sagastian sagardo egileen teknika eta sekretuak aurkituko dituzte eta sagarrondo, hazitegi, sagar mota desberdin eta aintzinako tolare baten bueltan ibiliko dira, sagarrak bildu eta sagarrak joaz. Museo-gunean, berriz, sagarra eta sagardoaren historia, usadioaren iturburua, erremintak eta elaborazio prozesua aurkituko dituzte, sagardoaren kulturara gerturatuz.

Behin sagardoaren kulturaren barneratuta, sagarrarekin, sagardogintzarekin eta ingurugiroarekin loturiko jolasak landuko dira Sagardoetxean bertan elkarrekintza eta ingurugiro heziketa lantzeko: katea, sagarrondo bat naiz, oreka ekologikoa, Dasti itsua, sagastian galdurik, Dasti ipuinkontalaria, etb...

**Oharra:** Sagardoetxeako gida batek zuzenduko ditu museoeko bisita gidatua eta haur jolasak. Iraupena 2 ordu eta 30 min ingurukoa izango da.

## A PROPOSAMENA: HERRIAN BAZKALDU ETA PILOTALEKUAN JOLAS LIBREAK

Herriko plazan dagoen pilotaleku estaliak bazkaltzeko eta jolaserako aukera egokia eskaintzen dute. Hori horrela izanik, zuen herrietara itzuli aurretik Astigarragan bertan bazkaltzeko eta bazkalostean hurrekin jolasean aritzeko aukera izango dezute.

**Oharra:** Jolas hauek libreak direnez, ez ditu Sagardoetxeako gidak zuzenduko, begiraleak baizik.

## B PROPOSAMENA: HERRIKO IGERILEKUAN BAZKALDU ETA ARRATSALDE-PASA

Astigarragan egun pasa osatu nahi dutenek, Astigarragako igerilekura joateko aukera izango dute, bertan bazkaldu eta arratsalde dibertigarri bat pasatzeko. Igerilekuan, ur-jolasak lantzeko eta atsedendiaz gozatzeko aukera izango dute hurrek.

**Oharra:** Jolas hauek libreak direnez, ez ditu Sagardoetxeako gidak zuzenduko, begiraleak baizik.

## MATERIAL DIDAKTIKOA

Sagardoetxean ahalegin handia egin dugu sagarraren kulturaren gaineko material didaktikoa osatzeko eta adin tarte bakoitzerako koadernoak prestatu ditugu, beren jakintza eta formazioa kontuan hartuta. Material didaktiko honi esker, Sagardoetxeara eginiko bisitan ikasitakoa ikasgelan lantzeko aukera izango dute hurrek.

## Tarifak

### A proposamena:

Sagardoetxean bisita gidatua eta haur jolasak + Herrian bazkaldu eta pilotalekuan jolas libreak ..... 2 euro haur bakoitzeko

### B proposamena:

Sagardoetxean bisita gidatua eta haur jolasak + Herriko igerilekuan bazkaldu eta arratsalde-pasa ..... 5 euro haur bakoitzeko

Oharrak:

- Prezio hauen barruan BEZ-a sartuta dago.
- Begiraleek doako sarrera dute, bai Sagardoetxean, bai igerilekuan.
- Tarifa hauek taldeentzako bakarrik dira (gutxienez 15 laguneko taldeak).